

Nor dira AEKko ikasleak ?

17. Korrika dela-ta begirada eman behar genioke Alfabetatze, Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Ipar Euskal Herrian egiten duen lan ederrari. Hain zuzen 2010ean Euskaltzaindian ikerketa bat egin da gai honetaz. Izen burua : *Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos, Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian*. Gure xedea zen ikustea etorkinek euskara nola eta zertarako ikasten duten. Hortarako ikasleek urte hastapenean betetzen dituzten fitxak baliatu ditugu, hiru ikasturte hartuz 1995-1996, 2002-2003, 2008-2009. Ikasleen ezaugarriak agertzen dira, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa-maila, bai eta ere beren motibazioak eta helburuak. Hona hemen xehetasun batzuk.

Ikasle helduen jatorria

AEKko ikasleak bi multzotan ezarri ditugu, herrikoak eta etorkinak. Etorkinak deitzen ditugu Euskal Herritik kanpo sortuak direnak.

AEKko ikasleak sorterriaren arabera

<i>Ikasturteak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	546 : %65	289 : %35	835 : %100
<i>2002-2003</i>	513 : %57	380 : %43	893 : %100
<i>2008-2009</i>	455 : %52	424 : %48	879 : %100
<i>Hiru ikasturteak</i>	1514 : %58	1093 : %42	2607 : %100

Ikasturte batetik bestera gero eta etorkin gehiago bada gau eskoletan, herriko ikasleak konparatuz. Etorkin horiek nondik datoz ? Sorterria ez zen galdegina lehen urteetan, gainera ikasle batzuk ez zuten beren fitxa ongi bete. Halere 2008an 530 fitxa baditugu non sorlekua emana baita. 8 gau eskolak dira Amikuze, Arbona, Biarritz, Hazparne, Hiriburu, Itsasu, Lehuntze eta Uztaritze.

Euskal Herrian sortuak direnek talde handiena osatzen dute, 266 ikasle (%50). Frantzia beherekoak 231 dira (%44). Etorkin atzerritarrak 33 dira (%6). Heien herriak zein dira ? - *European*, Alemania (2), Austria (1), Espainia (7), Hungaria (1), Ingalaterra (1), Portugal (1) ; - *Afrikan*, Aljeria (2), Boli Kosta (1), Kamerun (1), Maroko (5), Senegal (1), Togo (1) ; - *Ameriketan*, Argentina (1), Brasil (1), Estatu Batuak (2), Kolonia (1), Uruguai (1) - *Asian*, Israel (1), Japonia (1) ; - *Ozeanian*, Australia (1).

Zein dira AEKko ikasleen ikasketa-mailak

Ikasle-fitxetan 2002ko eta 2008ko emaitzak baditugu zein den ikaslearen ikasketa maila ikasturte hastapenean. Zazpi maila eman ziren ikaslearen hauturako :

- 1 - Ikasketarik ez du bururatu.
- 2 - Lehen mailako ikasketa bururatu du, normalean 10-11 urtetan.
- 3 - BEPC diploma kolegioan ardiesten da, 14-15 urtetan.
- 4 - BEP-CAP lanbide diploma hauk erdiesten dira 16. urtean edo berantago.
- 5 - Batxilergoak lizeoko ikasketa bururatzen du 17-18 urtetan.
- 6 - Unibertsitateko diplomak : DEUG, lizentzia, masterra eta doktoregoa.
- 7 - Beste formakuntza batzu badira arte ederretan, erizaingoan, kiroletan...

<i>Ikasketa mailak</i>	<i>Herriko ikasleak</i>	<i>Ikasle etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
1. <i>Deus ez</i>	9 = % 1	3 = %0,5	12 = % 1
2. <i>Lehen maila</i>	4 = %0,5	5 = % 1	9 = % 1
3. <i>BEPC</i>	27 = % 4	30 = % 5	57 = % 5
4. <i>BEP-CAP</i>	117 = %17	76 = %12	193 = %15
5. <i>Batxilergoa</i>	166 = %24	117 = %18	283 = %22
6. <i>Unibertsitatea</i>	219 = %40	330 = %52	549 = %43
7. <i>Beste bat</i>	95 = %13,5	75 = %11,5	170 = %13
<i>Orotara</i>	637 = %100	636 = %100	1273 = %100

Ohargarri da ikasleen hastapeneko maila biziki ona dela. Alabaina maila gorago eta ikasle gehiago bada. Ehunekoen arabera ikasketarik gabeko ikasleak %1 dira, lehen mailako ikasketa bururatu dutenak %1, BEPC eskuratu dutenak %4, BEP-CAP %14, batxilergoa %21, unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %46 eta beste formakuntzarik %13.

Herriko ikasleen eta etorkinen ikasketa-maila konparatzen badugu, ezberdintasun bat agertzen zaigu. Etorkinen ikasketa-maila herrikoena baino gorago da. Unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %52 dira, herrikoen %40 bakarrik. Batxilergoaren mailan alderantzia da, etorkinak %18 dira eta herrikoak %24.

Zein heinetan euskara ikasten dute ?

AEK-k ikasleen gaitasuna neurtzeko 8 urrats finkatu ditu 5 mailatan banatuak, Konpara ditzagun Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa (A1, A2, B1, B2, C1, C2) eta AEKren Curriculumuma :

- A1 = Hasiera maila = 1. urratsa
- A2 = 1.A maila = 2. eta 3. urratsak
- B1 = 1.B maila = 4. eta 5. urratsak
- B2 = 2. maila = 6. eta 7. urratsak
- C1 = 3. maila = 8. urratsa, EGA eta hobekuntza.

Hona Europako markoen definizioak :

A1. Hastapen maila maila : ikasleak ulertzen eta erabiltzen ditu usaiako hitzak : agurrak, eskerrak, galde-erantzun sinpleak.

A2. Arteko maila edo biziraupen maila : ikasleak usaiako esaldiak ulertzen eta erabiltzen ditu informazioak trukatzeko, ekintza sinpleak eramateko, inguruko gauzak deskribatzeko.

B1. Atalase maila : irakaslea hiztun berri bilakatu da. Nahiko mintzamina dauka eguneroko harremanetarako. Usaiako gertakarietan diskurtso koherente batekin bere iritzia adierazten du.

B2. Maila aurreratua eta burujabea : hiztun berriak ez du irakaslearen beharrik hitz egiteko. Elkarrizketan errazki ari da eta bere iritziaren aldeko argudioak eztabaidatzen ditu.

C1. Maila autonomia : testu luzeak eta zailak ulertzen ditu. Bat bateko adiarezpen erraza egin dezake hitzak bilatu gabe. Hitzardiak eta hitz jokoak ulertzen ditu. Komunikazio eraginkorra da bizitza sozialean, profesionalean eta kulturean.

C2. Nagusitasun maila : hiztunak hizkuntza berria menperatzen du bere jatorrizko hizkuntza bezala. Entzuten eta irakurtzen duen guziaz berehala ulertzen du eta erantzuten erraztasunez, gai konplexuetan ere.

Ikasleak AEKren urratsen arabera: kopuruak hiru urteak bildurik

Europa	AEK	Ikasleak	Ehunekoak
A1	1. urratsa	1074	% 41
A2	2. urratsa	455	% 17
	3. urratsa	409	% 16
B1	4. urratsa	240	% 9
	5. urratsa	168	% 7
B2	6. urratsa	89	% 3
	7. urratsa	26	% 1
C1	8. urratsa	34	% 1
	Hobekuntza	25	% 1
C2	EGA	40	% 2
	Alfabetatze	47	% 2
	Orotara	2607	% 100

Taula honek balio du AEKren eraginkortasuna neurtzeko. Alabaina fitxa ikasturtearen hastapenean betetzen da. Baina ohargarri da urte batetik bestera mailen ehunekoak berdintsu gelditzen direla. Beraz aurtengo sailkapena aitzinagoko ikasturtearen ondorio bezala har daiteke.

Betiko galdea : AEKk zenbat euskaldun oso sortzen ditu eta zenbat ikasle gelditzen dira “elebidun hartzaile” ? Erantzuna zaila da, ez baita erraz erraitea zer den hizkuntza berri bat menperatzea. Inkesta soziolinguistikoetan hiru maila badira :

- Lehen mailan erdaldun dira oraino 1. urratsean gelditu diren 619 ikasleak (%24). Iduri luke muga bat badela lehen eta bigarren ikasturtearen artean gainditzeko zaila dena.
- Bigarren mailan badago ikaslegoaren heren bat 864 hiztun (%33), 2. eta 3. urratsekoak : jadanik elebidun hartzaile bilakatu dena, irratien entzuteko gai direnak, kulturgintzan ulertuz parte hartzeko, harreman sinboliko batzuk eramateko, (agian) urrunago joateko gogoarekin. Kasik euskaldunak dira euskara ulertzen dute eta doi bat mintzatzen.
- Euskaldun berriak dira euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten ikasi dutenak. Hots "atalase maila" iragan dutenak, AEKren 4. urratsetik hebekuntzarainokoak : 582 hiztun (%22).
- Jatorrizko euskaldun alfabetatuak eta diplomatuak 87 dira (%4).

AEKren lana eraginkorra da. Ikasleen laurden bat biderdi gelditu dira, heren bat kasik euskaldunak dira eta besteak osoki euskaldunak dira. Baina zailago da etorkin helduak euskalduntzea ezinez eta herriko erdaldunak. Diagnostika zuzen bat egiteko ikertu behar litzateke zein diren lehen ikasturtearen buruko abandonoaren arrazoiak. Datorren kronikan aztertuko ditugu ikasleen motibazioak eta helburuak.

Erramun Baxok